2. mailako *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaia. 2012-2013 ikasturtea

1. ariketa (eskualdearen eskala)

Eskualdearen azterketa

Aurtengo tailer bateratuko praktika Gasteizen denez, *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiko ikasleek, taldeka, Arabako Lautada eskualdearen azterketa laukoitza egin beharko dute:

1. Unitate geografikoaren eta kulturalaren mugaketa: Zadorra ibaiaren arro hidrologikoaren mugaketa + Arabako Lautadaren mugaketa (zati batzuetan bat egingo dute).
2. Arabako Lautadaren morfologia-azterketa: erliebea (hipsometria + itzalak, eguzkiak ipar-mendebaldetik joko balu bezala + sekzioa) eta hidrologia; muga administratiboak kontuan hartu gabe.
3. Arabako Lautadako lurralde mailako sistema orokorren azterketa (autobideak, autobiak eta errepideak; bide historikoak; trenbideak, daudenak eta eraikitzen ari direnak; urtegiak; araztegiak; parke eolikoak; natura-gune babestuak; base militarrak, kartzelak…).
4. Arabako Lautadako giza-finkamenduen azterketa, herrien kokaguneen zergatia azalduz (grafikoki, ahal bada).

Ariketa din A-3 tamainako 4 planotan emango da, urriaren 31ko (asteazkena) eskola teorikoaren hasieran. Ez ahaztu plano bakoitzaren izenburua, eskala eta legenda adierazten.

Oharra: Kartografia bektoriala http://www1.euskadi.net/cartografia/visor_euskera/home.htm webgunean duzue (EAE osoa, 1/400.000 eta 1/10.000 eskalen artean), bai eta http://carto.alava.net/cartografia/default_eus.htm webgunean ere (Araba osoa, 1/20.000 eta 1/500 eskalen artean).

Donostian, 2012ko irailaren 25ean

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño